

2024ko irailaren 28a eta 29a

Lagun agurgarriak:

Gure Elizak Bilboko elizbarrutiaren 75. urteurrena ospatuko du. Ikasturte hasierako “*Caritas – Kristau Elkartea*” baterako kanpainak ospakizun horren berri ematen du, eta gonbita egiten dizue 2024-2025 ikasturtean antolatzen den ekimen orotan kontuan har dadin kanpainaren kartelean ikusten dena: BAGARA. Izan ere, Elkartea gara eta Elizbarrutiko VI. Ebanjelizazio Planean (2022-2027) proposatutakoa oinarri hartuta begiratu nahi diogu etorkizunari –ETORKIZUNARI BEGIRA–: Lekukotasuna eman, Jesusekin egon (Jn 15,27).



Ikasturte honetako *Begiradak* (elizbarrutiko baterako ikuspegiak) adorea ematen digu osatu dezagun elkarte abegitsuago eta inklusiboago bat, pertsonen eta egoeren, sentiberatasunen eta bizipenen aniztasunari irekia: “zabaldu zeure etxolaren esparrua” (Is 54,2), anai-arreben benetako elkarte izateko helburu sendoarekin. Mezu hori estu lotuta dago Frantzisko aita santuak Eliza osoarentzat 2025. urterako Jubileuaren deialdian egin duen eskariarekin: lan egin dezagun bakearen alde.

Keinu bakoitzak balio duenez, zuen eguneroko bizitzan helburu batzuk txertatzera animatzen zaituztegu:

- **Fokatu begirada.** Ireki begiak kontzienteki, orain arte oharkabean pasatu zaizkizun eta zugandik gertu dauden errealitateak, pertsonak eta egoerak ikusi ahal izateko.
- **Zabaldu besoak.** Utzi beste pertsona batzuei zure bizitzan sartzen, interpelatzen eta eraldatzen.
- **Bizi apaltasunez.** Proposatu denbora eta eguneroko keinuak, gelditu, entzun eta zure bidean aurkitzen duzunari hobeto laguntzeko.
- **Elkartean ibili.** Aurkitu zure lekua elkartean, zure dohainen arabera. Gozatu zeregin partekatua eta amestu bide komunitario berriak.

Elizbarrutiko Kontseiluak “bidea elkarrekin” egiteko giro horretan, baterako diru-bilketa bat proposatzen digu, Caritasen jardunerako eta parrokiako jarduerak babesteko erabili dadin, erdi bana. Egin dezagun ondasunen elkartasunaren eta ahalegin partekatuaren alde, anaitasunezko adierazpenaren eta gure bizitasunaren ikur gisa!

Jaso ezazue besarkada bero bat.



Kerman López
Bikario Nagusia



Elena Unzueta
Caritas Bizkaiaiko Zuzendaria

OHARRA. Laguntza eskatzen dizuegu asteburua ahal den ondoen antolatzeko:

- 1- Animatu GOAZEN elizbarrutiko ikasturte pastoralaren hasiera ekitaldian parte hartzera. Derion izango da, irailaren 28an (larunbata), goizetik. bizkeliza.org webgunean duzue informazioa eta izena emateko modua.
- 2- Motibatu aurreko asteko eukaristietan asteburu horretako diru-bilketan parte hartzeko.
- 3- Aipatu “Migratzaileen eta Errefuxiatuen Munduko Eguna” eta bultzatu elkarte abegitsua izateko deiarekin bat egitera.
- 4- Kanpainaren kartela aurrekoen bidetik doa, baina 75. urteurrenaren logoa izango du. Ikasturte osoan ondo ikusteko moduan edukitzea komeni da.

Mila esker

28 y 29 de septiembre de 2024

Estimados amigos, estimadas amigas:

Nuestra Iglesia en Bizkaia se dispone a celebrar el 75 aniversario de la diócesis de Bilbao. La campaña conjunta “*Caritas – Comunidad Cristiana*” de inicio de curso se hace eco de este acontecimiento para invitaros a que todo lo que hagamos durante el curso 2024-2025 tenga en cuenta lo que dice el cartel de la campaña: BAGARA. Somos comunidad y queremos mirar al futuro –ETORKIZUNARI BEGIRA- apoyándonos en lo que nos hemos propuesto en el VI Plan Diocesano de Evangelización (2022-2027): Dar testimonio, estar con Jesús (Jn 15,27).



La *begirada* (enfoque diocesano común) este curso sigue alentándonos a construir una comunidad acogedora e inclusiva, abierta a la diversidad de personas y situaciones, de sensibilidades y vivencias: “ensancha el espacio de nuestra tienda” (Is 54,2) con el deseo de ser verdadera comunidad de hermanos y hermanas. Está en línea con la potente llamada a trabajar por la paz con la que el papa Francisco ha convocado el Jubileo de 2025 para toda la Iglesia.

Puesto que cada gesto cuenta, os animamos a incorporar unos propósitos a vuestro día a día:

- **Enfoca la mirada.** Abre los ojos de forma consciente para poder ver realidades, personas y situaciones en las que hasta ahora no habías reparado y están cerca de ti.
- **Sal al encuentro.** Deja que otras personas entren en tu vida, te interpelen y te transformen.
- **Vive sencillamente.** Proponte tiempo y gestos cotidianos que te permitan pararte, escuchar y acompañar mejor a quien se encuentra en tu camino.
- **Camina en comunidad.** Descubre tu lugar en la comunidad acorde a tus dones. Disfruta de la tarea compartida y sueña nuevos caminos comunitarios.

El Consejo Episcopal, en ese ambiente sinodal de “caminar juntos” nos propone una colecta conjunta que se destine, a partes iguales, para la acción de Cáritas y para el sostenimiento de las actividades parroquiales. ¡Apostemos por la comunión de bienes y por el esfuerzo compartido como expresión de nuestra fraternidad y signo de nuestra vitalidad!

Recibid un cálido abrazo.



Kerman López
Vicario General



Elena Unzueta
Directora de Caritas Bizkaia

NOTA. Os pedimos apoyo para organizar lo mejor posible este fin de semana:

- 1- Animad a participar en el acto de principio de curso pastoral diocesano GOAZEN que tendrá lugar en Derio desde la mañana el sábado 28 de septiembre. En la página web bizkeliza.org encontraréis información y modo de inscribirse.
- 2- Motivad en las eucaristías de la semana anterior a la colecta de este fin de semana.
- 3- Haced una mención a la “Jornada Mundial del Migrante y el Refugiado” y su llamada en sintonía con el ser comunidad acogedora.
- 4- El cartel de campaña, en continuidad con los anteriores pero abierto a la novedad con el nuevo logo del 75 aniversario convendrá mantenerlo visible durante el curso